

2025eko urtarila



Izan ezik – Ez ezik

2025eko lehen hilabete honetan, **izan ezik** eta **ez ezik** bereizten ahalegindu behar dugu. Teorian, argi dago adiera eta funtzio ezberdinak dituztela, baina antzekoak direlako edo, praktikara eramatean nahastea sorrazten digu:

Jon ez ezik, gainerakoak etorri dira ala Jon izan ezik gainerakoak etorri dira? Igaro gaitezen, bada, araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Hasteko, esan beharra dago **ezik** ezin dela inoiz bakarrik joan. Beraz, **izan ezik** edo **ez ezik** erabiliko da esan nahi denaren baitan.

IZAN EZIK

Salbu adiera eman nahi dugunean, izen-sintagmari **izan ezik** erantsiko zaio. Aurrean doan sintagmak dagokion kasu-marka eramango du:

- Debe katuta dago autobusentzat eta taxientzat **ezik**. ***
- Debe katuta dago autobusentzat eta taxientzat **izan ezik**.
- Teologiaz **ezik**, beste edozertaz daki hitz egiten. ***
- Teologiaz **izan ezik**, beste edozertaz daki hitz egiten.
- Zuri **ezik**, gainerako guztiei bidali diet txostena. ***
- Zuri **izan ezik**, gainerako guztiei bidali diet txostena.

EZ EZIK

Esapide honek beste adiera bat du: **gehitu** egiten du. (Gaztelaniazko: no solo... sino también). Emendiozko esapide hau aurreko juntagaiaren atzean **ez ezik** eta bigarreanean **ere** lokailua gehituz eratzen da. Hona hemen zenbait adibide:

- Ikusi duzu kamioi berri hori? Ikusi **ezik**, gidatu egin dut. ***
- Ikusi duzu kamioi berri hori? Ikusi **ez ezik**, gidatu **ere** egin dut.
- Maite **ezik**, beste guztiak etorri dira. ***
- Maite **ez ezik**, beste guztiak **ere** etorri dira.
- Hau **ezik**, gainerakoak ederto eginda daude. ***
- Hau **ez ezik**, gainerakoak **ere** ederto eginda daude.

GOGORATU

- Politikaz **izan ezik** (salbu), beste edozertaz daki hitz egiten. (Politikaz ez daki.)
- Politikaz **ez ezik**, beste edozertaz **ere** badaki hitz egiten. (Politikaz badaki.)



Ohiko erdarakadak



✗ **Beste egunean ez zinen etorri.**



Lehengo egunean, ez zinen etorri.



✗ **Beste egunean etorriko da.**



**Beste [egun(en)] batean /
hurrengoan etorriko da.**



Beste ≠ Lehengo



Kalko desegokia da
beste egunean
esatea. Horren ordez:
lehengo/aurreko
egunean edo
lehengo/aurreko
egun batean.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



EGUNERO OSPITALA ≠ EGUNEKO OSPITALEA

Zain dezagun euskara!